

HAURREN ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN GAINEKO GLOSARIOA

Honako hauek parte-hartzearen, demokraziaren eta herritartasunaren gainean hitz egiteko erabiltzen ditugun hitzak dira; horiei esker, haur eta nerabe guztien parte-hartze eskubidea zer den hobeto ulertuko dugu.

Definizioetan nabarmendutako terminoek sarrera propioa dute glosarioan.

>> a

Adierazpen-askatasuna

Haur guztiek era guztietako informazioa eta ideiak bilatzeko, jasotzeko eta zabaltzeko eskubidea dute, beti ere besteen eskubideak edo bere eskubideak kaltetzen ez direnean. Haurren zereginaren inguruko jarrera sozial tradizionalak oztopoak jartzen dizkiote batzuetan eskubide horri: haurrek, eskubide hori gauzatzeko, beren hezkuntzaz arduratzen diren pertsona helduen norabidea eta orientazioa behar izan arren, horrek ez du esan nahi eskubide hori mugatu behar denik. Ondo bereizi behar da komunikazio-produktu askotan (albisteetan, entretenimendu-programetan, telesailetan, eta abarretan) haurrek duten protagonismoa eta haurrek eta nerabeek albisteak, gidoiak, erreportajeak eta beste hainbat komunikazio-produkturen aukeraketan, ekoizpenean eta hedapenean parte hartu dezaketenean sortzen den egiazko adierazpen-askatasuna.

Autonomia pertsonala

Gauzak ekimen propioarekin egiteko gaitasuna da, independentziarekin eta erantzukizunarekin. Autonomia hartzeak esan nahi du pixkanaka-pixkanaka erabaki pertsonalak hartzeko gai izango direla bizitzeko moduaren gainean, bizitzeko egin beharreko ekintzak garatu ahal

izateko eta hartutako erabakien erantzukizunak hartzeko. Haurrek eta nerabeek beren garapenean zehar erabateko autonomia pertsonala lortu ahal izateko, beren eguneroko bizitzari eragiten dieten gaien gainean parte hartu behar dute eta haietaz arduratu.

Babestuak izatea eduki kaltegarrien aurrean

Haurrentzako eduki kaltegarriak, legalak izan arren, haurren eta nerabeen garapena kaltetu dezaketen edukiak dira. Normalean, jokabide arriskutsuekin, delituzkoekin edo osasun fisikorako edo emozionalerako jokabide kaltegarrien adierazpenarekin lotzen dira (esaterako, drogen, indarkeriaren edo pornografiaren erabilera). Eduki kaltegarriak muga argi bat dira haurrek **informazio egokia eskuratzeko eta adierazpen-askatasuna** izateko orduan; izan ere, haiek babestuak izateko eskubidea defendatu ahal izateko, ezin dute horiek eskuratzeko, zabaltzeko edo ekoizteko aukerarik izan behar. Kaltegarria zer den aldatu egin daiteke gai kulturalen eta pertsonalen arabera; hala ere, hainbat irizpide bateratu daude zenbait eduki eskuratzeko, esaterako, adinaren sailkapena zineman, PEGI kodea bideo-jokoetan edo haurrak telebistaren aurrean babesteko ordutegi-tarteak.



Berrikuntza

Honela definitu daiteke berrikuntza: hezkuntza mailan eraldaketa nabarmena sortzeko gaitasuna duten nobedadeak txertatzea estrategietan, prozesuetan, produktuetan edo tresnetan. Haurren parte-hartzeak berrikuntzarako aukerak zabaltzen ditu ikasgelan eta ikastetxean, ikuspegi berriak eta inguruneke erronkak konpontzeko beste modu batzuk txertatzen baitira. Bestetik, eskolan berrikuntza mailan egiten diren aurrerapenak parte-hartze formulak jaso behar dituzte, eskola-komunitate osoak aldaketetan aktiboki parte hartu ahal izan dezan.

Bizitza pribatua babestea

Haurrak eskubideen subjektuak dira, eta ondorioz, honako hauek izateko eskubidea dute: intimitatea, norbere irudia, beren eta beren familiaren bizitza pribatuarenganako errespetua izatea, beren etxean edo posta-trukean –sare sozialetan barne– injerentzien helburu ez izatea, eta inork haiei ez iraintzeko, degradatzeko, apaltzeko edo beren ohoreari edo izen onari ez erasotzeko eskubidea izatea. Eskubide horiek ahaztu egiten dira batzuetan, onartzen dugulako haurrek intimitatearen zentzu gutxiago dutela helduek baino, edo haurren intimitateak garrantzia gutxiago duela. Haur edo nerabe guztiek beren bizitza pribatuaren gaineko eskubidea dutela onartzea funtsezkoa da, ez bakarrik beren parte-hartzeko eskubiderako, baizik eta baita abusuaren aurrean babestuak izateko eskubiderako ere.

Dibertsitatea

Ingurunean zenbat eta aniztasun handiagoa izan, orduan eta zailagoa izango da egiazko parte-hartzea izatea, non esperientzia, premia eta ikuspuntu desberdinak dituzten pertsonekin hitz egiteko eta akordioak lortzeko erronkari aurre egin beharko diogun. Parte hartzen ikasteko, haurrek dibertsitatea balioesten ikasi behar dute, baita gaitasun, kultura, adin edo iritzi ezberdinak dituzten beste pertsona batzuen inguruneetan lan egiten ere.

Elkarrekiko konfiantza

Haurren parte-hartzearen oinarrietako bat da: parte hartzeko prozesu batean inplikaturako guztiak konfiantza sortzeko eta izateko gai izan behar dira. Gure buruarengan eta parte hartzen dugun taldearengan konfiantzarik ez badugu, ezingo dugu ekarpenik egin, ezta besteen ekarpenen gainean hitz egin ere. Konfiantza **errespetuarekin** eta **gardentasunarekin** oso loturik dago.

Elkartze-askatasuna

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak elkartze-askatasunaren eta bilera baketsuak egiteko askatasunaren eskubidea aintzatesten du. Praktikan, legeak hainbat murriztapen ezartzen ditu eskubide horren gainean; izan ere, gaitasun juridikorik ez dutenez, haurrek ezin dituzte karguak bete elkarretaratzeetan. Elkarretaratzeko forma juridikoaren aldean ezberdinak diren beste elkartzeko modu formalek edo informalek (esaterako, eskola-kontseiluak edo udalerrietako haurren kontseiluak) ez dituzte murriztapen horiek. Era berean, bilerak modu baketsuan egiteko askatasunak ez du mugarik, beste pertsona batzuen eskubideenganako errespetua salbu: haurrek eta nerabeek askatasunez parte har dezakete bileretan, mahai-inguruetan, batzarretan, martxetan edo manifestazioetan, esaterako.

Errespetua

Errespetua da besteen gainean egiten dugun balioespena, haiei ematen diegun arreta eta haien duintasunaren gainean dugun ikuspegia. Ezin da egiazko parte-hartzerik izan beste pertsona batzueganako, gure buruarekiko eta parte-hartze prozesu propioarekiko errespeturik gabe. Errespetua, konfiantza eta **gardentasuna** elkarrekin loturik daude.

>> e-h

Espiritu kritikoa

Iristen zaigun informazioa aztertzeko eta ebaluatzeko gaitasuna da, elementu arrazionaletan oinarritutako irizpide independentea osatu ahal izan dezagun. Espiritu kritikoa ezin da erabat garatu baldin eta **informazio egokia eskuratzea** mugatzen bada (esaterako, albiste faltsuen, informazio-zentsuraren edo desinformazioarako eta manipulazioarako beste modu batzuen eraginpean jartzen garenean). Haurrengan eta nerabeengan espiritu kritikoa sustatzea funtsezkoa da erabaki funtsatuak eta askeak hartu ahal izan ditzaten, **adierazpen-askatasunerako** eskubidea gauzatu dezaten, eta informazioaren edo inguruko iritzien balizko alborapenak eta manipulazioak hautematen ikasi ahal izan dezaten. Espiritu kritikoa sustatzeko, garrantzitsua da ebidentzia kontuan izatea (irizpide zientifikoetan oinarriturik: ikasketak, datuak, inkestak, iturriak egiaztatzea, etab), baita **dibertsitatea** kontutan izatea ere: hainbat ikuspuntu izan behar dira kontuan, zenbait egoeraren gaineko balorazio osoak egin ahal izateko eta horien aurrean dagokion jarrera hartu ahal izateko. Komunikabideen inguruko hezkuntzan bost galdera klasiko daude, mezuen azterketa eta ebaluazio kritikoa gidatu dezaketenak, bereziki komunikabideetan eta sare sozialetan:

1. Nork sortu du mezu hori eta zein dira bere interesak?
2. Zer nolako teknikak erabili dira nire arreta erakartzeko?
3. Nola interpretatuko lukete mezu hori beste pertsona batzuek?
4. Zer balio, bizitza-estilo eta ikuspuntu azaltzen dira eta zer ez?
5. Zergatik zabaltzen da mezu hori?

Gardentasuna

Gardentasuna prozesu parte-hartzaileen kalitate bat da; gardentasunari esker, informazioa partekatu daiteke, prozesua zintzoa izan daiteke eta emaitzak irekiak izan daitezke parte-hartzaileen eta beste interesdun batzuen aurrean. Parte-hartzea prozesu ireki bat da, eta ondorioz, gardentasuna behar du konfiantza sortzeko. Gardentasuna beste pertsona batzuekiko dugun **errespetuaren** adierazpen bat da.

Gurasoen norabidea eta orientazioa

Familia funtsezkoa da giza eskubideen kontzientzia sortzeko, eta horienganako errespetua irakasteko. Guraso eta tutore legalek beren seme-alabak orientatzeko erantzukizuna dute, haien heldutasunaren eta gaitasunaren arabera, beren eskubideak gauzatu ditzaten. Haurrek familia-arloan parte hartu ahal izanez gero, haurren interes nagusia izango da kontuan eragiten dioten erabakietan.

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena

Nazioarteko arau-multzoa, Estatuaren betebeharrak jasotzen dituen mundu osoan haurrek dituzten eskubideak bete ditzaten. Hitzarmena, Estatu batek berretsitakoan, bertako legee gehitzen zaie eta erantzukizunak eskatzen dizkie bertako instituzio eta norbanako guztiei, ikastetxeak, irakasleak eta haurrak berak barne.

Haurren parte-hartzea

Haurren parte-hartzeari esker, haurrek eta nerabeek denon aurrerapenaren aldeko ekarpenak eta lankidetzat ematen dituzte; horrela, eskubide osoko herritartzat hartzen dira, eta familian, eskolan eta gizartearen, orokorrean, zuzenean eragiten dieten gaien gaineko iritziak eta erabakiak adierazteko gaitasuna erabiltzen dute. Parte-hartzeak onura garrantzitsuak ditu ikaskuntzaren gainean; izan ere, konfiantza, ekimena, erantzukizuna eta autonomia eraikitzen laguntzen du, hau da, elkarrekiko ikaskuntza-prozesu baten moduan uler daiteke, bai haurren zein helduen kasuan ere.

Herritartasun-gaitasuna

Haurrek eta nerabeek eskubide osoarekin parte hartu ahal izateko gaitasun-multzoa da; horretarako, hainbat ikaskuntza teoriko eta praktikoa hartu ditzate, beren eskubide zibilak, politikoak, sozialak eta kulturalak gauzatzeko. Gaitasun hori **progresiboa** da eta pixkanaka-pixkanaka eraikitzen da, haurtzarotik helduarora arte.

>> h-i

Herritartasun-hezkuntza

Herritartasunean hezteak esan nahi du herritar aktiboak, informatuak eta arduratsuak bilakatzen lagunduko zaiela ikasleei, behar dituzten eskumenak izan ditzaten, gizarte demokratiko batean parte hartu ahal izateko. Gainera, herritartasun-hezkuntzak potentzial maximoa garatzen laguntzen du, beren buruaz eta beren inguruneaz arduratzen laguntzen dieten ezagutzak, jarrerak eta tresnak garatzen laguntzen baitiete, esaterako:

- Besteekin modu eraginkorrean eta konstruktiboan elkarreragiteko eskumenak.
- Pentsamendu kritikoa garatzea.
- Erantzukizun eta gizartean parte hartzeko gaitasun handiagoa hartzea pixkanaka-pixkanaka.
- Autoestimua, duintasun pertsonala, askatasuna edo erantzukizuna garatzea.
- Beren eskubideak eta betebeharrak zein diren ezagutzea, baita demokratikoki jarduteko gaitasuna izatea ere.

Identitatea izateko eskubidea

Haur eta nerabe guztiek beren identitatea babesteko eskubidea dute. Identitatea izenaz eta nazionalitateaz harago doa. Honako hauek dira norbaiten identitatearen alderdiak: historia pertsonala, kultura, hizkuntza, irudia, gustuak, lehentasunak edo ideiak. Elementu horiek kontuan hartzen ditugunean, **elkarrekiko konfiantza** eraiki dezakegu eta **lankidetz**a ahalbidetu. Pertsonen identitatea errespetatu behar da haurren egiazko parte-hartze prozesuak ezartzeko.

Informazio egokia eskuratzea

Informazioa eskuratzea parte hartzeko eskubidearen parte da. Haur eta nerabe guztiek hainbat iturritako informazioa eta materiala eskuratzeko eskubidea dute, bereziki beren garapen intelektuala eta emozionala, ongizatea eta osasun fisikoa eta mentala sustatu dezaketen edukiak eskuratzeko eskubidea dute. Eskubide hori bermatzeko erantzuleak gobernuak, komunikabideak, editorialak, teknologia-enpresak, familiak, hezkuntza-zentroak, beste hainbat erakunde, eta edukiak ekoizten eta banatzen dituzten pertsonak


dira, haurrak barne. Eskubide horiek betetzeko hiru gauza bete behar dira:

- Adinaren eta heldutasun mailaren arabera, garatzen, bizitzarako ezagutza erabilgarriak eskuratzen eta espiritu kritikoa osatzen eta irizpide-independentsia eratzen lagunduko dioten informazioa eta edukiak eskuratzen laguntzea haur bakoitzari.
- Baliabide legalak, teknologikoak eta hezkuntzakoak jartzea haurrak eta nerabeak eduki kaltegarriengandik, bidegabeengandik edo faltsuengandik babesteko.
- Hezkuntzaren bidez informazioa eskuratzeko gaitasunak garatzea, bai eduki garrantzitsuak bilatzeari, kontsumitzeari eta banatzeari dagokionez, bai eduki ezegokien aurrean babesteari dagokionez ere, haurrak bere informazio-kontsumoaren gaineko erantzukizuna **progresiboki** gara dezan.

Inguruko garapen-eremua

Honela definitu zuen Lev Vygotsky-k inguruko garapen-eremua: egiazko garapen-mailaren (ikasle bakoitzak laguntzarik gabe egin dezakeenaren) eta potentzialaren arteko distantzia; potentziala soilik lortu ahal da baldin eta heldu batek gidatzen badu edo beste kide batzuen lankidetz

izaten bada. Hezkuntza-proposamenak egiazko garapen mailaren azpitik daudenean, ez da ikaskuntzarik sortzen. Aldiz, inguruko garapen mailaren gainetik badaude, frustrazioa sortuko dute. Inguruko garapen-eremuan egin ahal da aurrera ikasleak, besteen laguntzarekin ikasteko ahalegina eginez. Parte-hartze prozesuek ikaskuntza mailaren araberrako erronka planteatu dezaten, talde bakoitzaren inguruko garapen-eremura egokitu behar dira: ez dira izan behar ikasle nagusiek motibaziorik ez aurkitzeko moduko soilak, ezta ikasle gazteagoek lortu ezineko moduko konplexuak ere.



Inklusioa

Haurren parte-hartzeari ekitean, ikasle guztien ikaskuntza-premiei erantzun behar zaizkie. Egiazko parte-hartzea izateko baldintza, inklusioa izatea da: parte-hartze proposamenak haurren heldutasun eta garapen mailaren arabera egokitu behar dira, soilik “gaitasun gehiago” dutenei zuzendutako prozesuak sortzea saihestuz. Parte-hartzea, batzuetan, emaitza moduan ikus daiteke bakarrik; hala ere, ikaskuntza ere bada: tresnak eta metodoak egokitu egin behar dira talde osoaren gaitasunetara, ikuspegiatara eta premietara, bizitza osoan zehar beharko dituzten parte-hartze gaitasunak **progresiboki** hartu ahal izan ditzaten.

Iritzi publikoa

Normalean, haurrak ez dira iritzi publikoaren parte. Haurtzaroarekin lotutako gaiak ez dira eztabaida publikoaren helburu izaten (esaterako, gazteen delinkuentzia edo ikastetxeetako elikadura); hala ere, haurrak edo nerabeak berak gutxitan hartzen dira eztabaida horren parte moduan. Egia esan, haurrek gizarteko gaien inguruko iritziak dituzte, gai horiek zuzenean eragin edo ez, eta iritzi horiek garrantzitsuak dira. Galdeketetan edo komunikabideetan haurren ahotsa entzuten ez badugu, “iritzi publikoa”-k egiaz uste duenaren gaineko informazio baliotsua galtzen ari gara.

Iritzia emateko eskubidea

Norbere iritzia adierazteko eskubidea **parte hartzeko** eskubidearen parte da. Haur bakoitzak bere egoeraren gaineko iritzia sortzeko duen gaitasunarekin lotzen da eskubide hori, eta eragiten dioten gai guztien gaineko iritzia askatasunez adieraztea dakar. Horrek ez du esan nahi haurrek eta nerabeek erabateko autodeterminazioa izan behar dutenik erabakiak hartzeko, baizik eta beren iritziak kontuan izan beharko direla beren adinaren eta heldutasunaren arabera, eragiten dieten erabakiak hartu ahal izan ditzaten.

Lankidetzat

Bi pertsona, bi talde edo gehiagorentzat onuragarriak diren emaitzak eta helburuak lortzeko estrategia.

Lankidetzat egoteko, beharrezkoa da pertsonen elkarri lagundu eta elkarrekin lan egitea, denen helburuak lortzeko erantzukizuna hartzea eta bi aldeek onurarako izango diren irtenbideak bilatzea.

Norbere burua menderatzea (auto-menderakuntza)

Norbere burua menderatzea da pertsona bakoitzak bere burua erregulatzeko duen gaitasuna, norbere obligazioak bete eta besteen eskubideak urratu ez daitezen; hori existitzen ez denean, arau sozialek ez dute funtzionatzen eta ezin da parte hartu. Haurrek auto-menderakuntza txiki-txikitik gauzatzen ikastea funtsezkoa da, erantzukizunak hartzen, gizartean bizitzen eta parte hartzen ikas dezaten.

Pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna

Haurrek eta nerabeek eskubidea dute pentsamendu-askatasuna (iritzi propio bat eratzeko eta adierazteko), kontzientzia-askatasuna (esaterako, gai ideologikoen, artistikoen edo ingurumenekoen inguruan) eta erlijio-askatasuna (erlijio edo sinesmen batzuk hartzea aukeratzeko eta horiek adierazteko askatasuna) izateko; beti ere beren gurasoen zaintzapean, eta gainerako pertsonen eskubideak eta askatasunak babesteko legezko mugak errespetatzen diren bitartean.

Progresibitatea

Progresibitatea parte-hartze eskubideen kalitate bat da. Eskubide batzuk (esaterako, elikatzea, babesa edo berdintasuna) absolutuak dira haurtxo bat jaiotzen den unean. Beste eskubide batzuk, aldiz, zabaldu egiten dira haur bat hazten eta heltzen den eta irizpide-gaitasuna zabalitzen duen neurrian. Parte-hartzeko gaitasunak parte hartuz garatzen dira, eta parte hartu ahal izateko, ez da “itxaron” behar gaitasun horiek erabat garatu arte; bestela, praktikatzeko ez badira, agian ez dira inoiz ere garatuko; hori kontuan izatea garrantzitsua da. Parte-hartzean hezteko, ikasle bakoitzaren **inguruko garapen-eremua** izan behar da kontuan; hori funtsezkoa da.